



Arartekoaren 2019R-450-18 Ebazpena, 2019ko azaroaren 7koa. Horren bidez, Iburgurengo Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio bete dezala auzolanen ordenantzan ezarritako prozedura.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, eta horren bidez azaldu zuen ez zegoela ados Iburgurengo Administrazio Batzarrak premiamendu bidez auzolanak ordaintzeko exijitu izanarekin.

Pertsona horrek azaldu du, 2017ko udaberrian, beste herritar batek eta berak Iburgurengo Administrazio Batzarreko buruarekin hitzartu zutela herriaren zona bateko soropila moztuko zutela eta, horren truke, ez zutela gainerako auzolanetara joan beharrik izango. Hala ere, 2017ko irailean, premiamendu-probidentzia jaso zuen auzolanera ez agertzeagatik. Horren ondoren, beste bi premiamendu-probidentzia jaso zituen, ustez ez zituelako beste auzolan batzuk bete.

Interesdunak honako kontu hauek salatu zituen bere kexa-idazkian:

- Orain, administrazio-batzarreko buruak dio ez zutela hitzarmenik egin. Hala ere, auzolanen ordenantzako 4. artikulua berariaz jasotzen du badagoela horrelako hitzarmenak egiteko aukera, eta interesdunek adostutakoari jarraituz moztu zuten belarra.
 - Auzolanak ez dira ordenantzak ezarritakoaren arabera argitaratzen, hots, ez da ohiko bidetik nahiz ediktu taularen bidez ohartarazten zer lan egingo den, noiz eta non hasiko den eta zer lanabes eraman behar diren (ordenantzaren 3.4. eta 5. artikulua).
 - Izan ere, 2018ko otsailaren 2an batzarreko buruak interesdunari bidalitako idazkian adierazi zen auzolanak aldi hauetan egingo zirela, baina ez ziren zehaztu zereginak eta egunak:
 - 2017ko irailtik 2017ko urrira
 - 2017ko azaroaren 18tik 2017ko abenduaren 2ra
 - 2018ko urtarrilaren 13tik 2018ko urtarrilaren 29ra
 - Kexagilearen esanetan, egin gabekotzat jo diren auzolanak ez dizkiote jakinarazi, ez eta likidatu ere; hortaz, eginbehar hori betetzeari uko egiteko duen eskubidea urratu dute. Aitzitik, Arabako Foru Aldundiko Derrigorrezko Dirubilketa Zerbitzuak hainbat premiamendu-probidentzia bidali dizkio. Hala ere, ez diote erreklamaturako zorra alde aurretik jakinarazi eta likidatu, legezko baldintzak betez.
2. Horren ondoren, (...)k arrazoi bera zela-eta eta arazo bera azalduz aurkeztutako beste kexa bat jaso zuen Arartekoak (erreferentzia-zenbakia: 469/2018/QC).





Hortaz, salatutako egitateak eta egindako izapideak egiaztatu ondoren, espediente hau goiburuan aipatutakoaren gain metatu da.

3. Arartekoak kexen xedea aztertu zuen, eta, horren ondoren, Iburgurengo Administrazio Batzarrean aurkeztutako bi kexei buruzko informazioa eskatu zuen 2018ko martxoaren 27an eta apirilaren 10ean, hurrenez hurren. Horrekin batera, kontu hau erregulatzen duen araudi sektorialari buruzko lehenengo gogoeta batzuk helarazi zituen, eta errepikakorrak ez izateko, hurrengo atalean aipatuko dugu.

Nolanahi ere, kexen edukiari erreparatuta, Arartekoak honako informazio edo dokumentazio hau eskatu zuen zehazki:

- Nola adostu den auzolanak burutuko direla (batzarreko buruaren erabakia, kontzejuarena, etab.) eta, hala badagokio, interesdunari erreklamatzeko zaizkion aldiei lotuta egindako hitzarmenak biltzen dituzten akten edo ebazpenen kopia.
 - Interesdunari erreklamatzeko auzolanei lotuta egindako eta iragarki taulan argitaratutako deialdien fotokopiak.
 - Kexagileari likidazioa igorri zaion datei dagozkien auzolanak jasotzen dituen liburuaren fotokopia.
 - Administrazio batzarreko buruak kexagilearekin eta beste herritar batekin hitzarmena egin ote zuen.
 - Kexagileak eta beste herritar batek herriko zenbait espazio publikotan belarra moztu ote zuten, adierazi bezala.
 - Bestela, nork moztu zuen belarra edo nola egin ohi izan da lan hori beste urte batzuetan.
 - Hala badagokio, kexagileari igorritako auzolanen likidazioa.
 - Kexaren xedea aztertze aldera egokia iruditzen zaizun bestelako edozein informazio.
4. Arartekoak ez zuen jaso bi idazki horietan eskatutako informazioa, eta, beraz, bi errekerimendu igorri zituen, 2018ko maiatzaren 14an eta ekainaren 20an, baina ez zuen erantzunik jaso. Izan ere, administrazio-batzarreko buruari helarazitako komunikazioak ez dira Correosen bulegoan jaso, eta, jasotzeko denbora iraungi egin denez, bueltan bidali zaizkio Arartekoari.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Arartekoak gogorarazi behar du interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela herri-administrazioek. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkeztzen dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, erreklamatzeko behin betiko ebazpena eman arte.





Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa) 21. artikuluan dago jasota berariazko ebazpena emateko betebeharra. Izan ere, artikulua horrek ezartzen du *“Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.”*

Arartekoak behin baino gehiagotan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela. Izan ere, isiltasuna aplikatuz gero, herritarrek ez dakite beren eskaerei lotuta zer asmo duen administrazioak, eta horrek babesgabetasuna eragiten die eta eskatutakoari emandako erantzuna berrikustea galarazten du.

Administrazioak kalea itxi izanak ukitu dituen herritarren erreklamazioei ez erantzutea administrazioaren funtzionamendu anormala da, eta halaxe dela adierazi behar du Arartekoak.

Udalak jardunik ez egiteak herritarrei zerbitzua emateko betebeharra ez betetzea dakar. Gainera, horrek ahuldu egiten du administrazioak arduraz, eraginkortasunez eta modu ez-arbitrarioan jardungo duen bidezko konfiantza. Hortaz, ezinbestekoa da sakon ezagutzea zergatik hartu duen administrazioak erabaki hori, halabeharrez interes publikoko arrazoietan oinarritu beharrekoa -Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (40/2015, urriaren 1ekoa) 3. Artikulua-.

Bidezko konfiantzaren printzipioa, hain zuzen ere, segurtasun juridikoaren printzipioaren proiektzioa da, eta lotura estua du herri-administrazioen jardunaren legezkotasun-printzipioarekin. Hortaz, jokabide jakin bat exijitu beharra dago, gaiaren funtsean zein forman.

Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 13ko epaiak honela justifikatzen du (zuzenbideko bosgarren oinarria):

“...El ámbito de aplicación del principio de confianza legítima se ciñe a las expectativas o creencia legítima de los ciudadanos de un comportamiento debido por la Administración Pública. Es una técnica de protección de las situaciones jurídicas consolidadas por los particulares. O si se prefiere, con cierto grafismo que atribuye importantes perspectivas a este principio, la violación del principio de confianza legítima aparece como reacción del juez a una utilización abusiva de la norma jurídica o acto administrativo, que sorprende la confianza de las personas destinatarias de la norma, que no esperaban tal reacción....”.

Arartekoan kexak aurkeztu zituzten pertsonak salatutako egitateei erreparatuta egiazta daitekeenez, epaiak argi eta garbi adierazten du urratu egin dela aipatu dugun bidezko konfiantzaren printzipioa, ez bakarrik kexagileek ez dutelako erantzunik jaso administrazio-batzarrean aurkeztu zituzten erreklamazioen harira, baizik eta, horrez gain, entitateko buruarekin hartutako konpromisoak (hain zuzen ere mantentze-lan jakin batzuk egingo zituztela bete behar zituzten





auzolanak konplitzeko) eragin dituelako egitate horiek —hala diote kexagileek, eta ontzat eman behar dugu, ez delako kontrakoa esan berariaz horretarako ezarri den izapidean—. Kexagileen iritziz, adostutakoa betetzen ari zirelakoan jokatu zuten —gero ikusiko dugunez, betebeharra betetzeko modu hori babesten du auzolanen ordenantzak—, baina espero ez zuten erreakzioa jasan zuten administrazio-batzarraren aldetik, eta, gainera, ez dute harengandik defendatzeko aukerarik izan.

2. Bestalde, gaiaren funtsa jorratu aurretik (eskura dugun dokumentazioa eta informazioa erabilia aztertuko dugu hori) salatu behar dugu Donostiako Udala ez zela erakunde honekin lankidetzan aritu. Jarduketa hori ez dator bat eskatzen diren datu, agiri, txosten eta argibide guztiak, lehentasuna emanik eta lehenbailehen emateko legezko betebeharrarekin (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -Arartekoa sortu eta arautzekoa- 23. artikulua).
3. Arartekoak kexa bat jasotzen duenean, oro har, han adierazitakoa egiaztatzen du ukitutako administrazioarekin, eta, irizpide-elementu guztiak dituenean, administrazio-jarduna baloratzen du, legezko parametroekin eta herritarren eskubideekin bat. Aitzitik, erabateko lankidetzarik eza dagoenean, eta kasu honetan hala da, kexagileek aurkeztutako datuak bakarrik erabilia egin behar da azterketa, eta ezin da aintzat hartu ukitutako administrazioaren ikuspegia horiek egiaztatzeko.

Kontzejuetako auzolanak nahitaez eman beharreko zerbitzu pertsonalak dira, eta ondasun erkideei eragiten dien kontu bat denez, gutxienez bizilagunen edo egoileen familia bakoitzeko kide bat azaldu behar da horietara, edo, hala badagokio, kontzejuan etxebizitza bat partekatzen duen egoile-talde bakoitzeko kide bat —Auzolanen ordenantzaren (1999ko apirilaren 30eko ALHAOn, 47. zenbakikoan, argitaratu zen) 1. eta 3. artikulua—.

Norbaitek betebehar pertsonal bat badu eta ez badu zerbitzu hori ematen, obligaziodunak kalte-galeren ordaina eman beharko du, eta administrazio bidetik likidatu eta kobratuko zaio hori (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 104.2. artikulua). Horri dagokionez, ordenantzaren 6. artikulua —2017ko otsailaren 25eko erabakiaren bidez aldatu zen, 2017ko maiatzaren 24ko ALHAOn, 58. zenbakikoan, argitaratutako iragarkiaren arabera— honako hau xedatzen du:

“Auzolanean parte hartzera behartuta dauden auzotarrak lan horietatik libre geratu ahal izango dira, baldin eta beraien orde bestea bat joaten bada, edo auzolan bakoitzeko 100 euro ordaintzen badu; zenbateko hori urtero igo daiteke, kontzejuak erabakitzen duenaren arabera.

Auzolana egitera beste pertsona bat joatekoa bada, betebeharra duenak garaiz eman beharko dio horren berri lehendakariari.”



Hori dela eta, oso garrantzitsua da auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenei deia egiteko prozedura behar bezalako bermeekin egitea, bestela kalte-ordaina emateko betebeharra ezar dakiekeelako auzolanera ez azaltzeagatik, kexagileek salatu duten bezala, nahiz eta ez duten deialdirik jaso aurreikusitako bitartekoak erabilia. Ordenantzaren arabera, auzolanera joateko betebeharra dutenei honela emango zaie deialdien berri:

“3.4.- Ohiko bidez eta iragarpen-taulan egingo da auzolanerako deia, auzokoak eta egoiliarrek arazorik gabe joateko behar den denboraz.

Edonola ere, Administrazio Batzarrak auzolanak arrazoiko epe baten barruan nola egin aztertuko du, lana premiakoa den, zer eguraldia den eta abar kontuan harturik. Helburua auzokoek eta egoiliarrek ahalik eta modurik erosoenean lan egitea da.

3.5.- Auzolanak ahalik eta modu berdintsunean egiteko, nor agertu den eta nor ez den agertu jasoko da auzolanen liburu ofizialean.”

Auzolanetan parte hartzeko betebeharra duten herritar guztiek azaltzeko aukera izateko moduan egingo da deialdia, denbora nahikoarekin. Ez da zehaztu zein den epe hori, eta, beraz, kasu bakoitza aztertu beharko litzateke erabakitzeko zer aurrerapenekin egin behar den deia. Era berean, ordenantzaren 3.4. apartatuaren bigarren paragrafoan azaldutakoari jarraituz, zerbitzua eman behar dutenek une ezberdinetan egin ditzakete auzolanak. Beraz, ulertu behar da zeregin jakin bat esleitzen zaiola obligaziodun bati edo batzuei, arrazoizko epe batean egin dezaten, ahalik eta modu erosoenean. Kexagileak eta beste herritar batek (beste kexagilearen senarra) betetako zeregina, hots, belarra moztea, xedapen horrekin bat hitzartu zen, administrazio-batzarreko buruarekin adostutakoarekin bat.

Izan ere, ordenantzaren 4. artikulua auzolanak egiteko modua zehazten du. Hauxe dio:

“Arau orokor bezala, auzolana jarri den lekura eta orduan joanez burutuko da, eta bakoitza, gauzatu behar duen auzolan motarako zehaztua izan den tresna edo makinaz hornitua joango da.

Gauzatu behar diren lanen neurrien eta hedaduraren arabera, deia auzokide edo egoiliarren kopuru zehatz baterako eman ahal izango da, baita bakar batentzat ere. Hauek trebetasun eta gertutasun irizpide batekin izendatuko dira, horrela gainerakoei eta joaten diren auzolanei kalte posible txikiena egingo dietelarik; lan horiek beste deialdi orokorrekin konpentsatu ahal izango dira, hauetatik salbuetsi daitezkeelarik.”

Obligaziodun bakoitzak egindako auzolanak, bai eta egindako zeregin zehatzak ere, behar bezala jaso behar dira auzolanen liburuan, eta nor azaldu den eta nork huts egin duen ere adieraziko da han. Nolanahi ere, kontuan izanda



aurreikusitakoaren arabera posible dela obligaziodun batek edo batzuek deialdi kolektiboa egiten den unean ez beste batean betetzea zereginak, banaketa bidezkoa izan dadin ezinbestekoa da auzolanen liburua eguneratuta egotea beti, eta zehaztea zer zeregin bete dituen obligaziodun bakoitzak, eta zer kasu konpentsatu diren. Bestela, esleitutako zereginen inguruan hartutako erabakiak (noiz, nola eta nork bete behar dituen) jaso ezean, baliteke egoera erabat arbitrarioa eta bidegabea izatea, kexagileek salatu duten bezala.

Laburbilduz, auzolanen deialdi orokorra denbora nahikoarekin egin behar da, horietan parte hartu behar dutenek haien berri izan dezaten, eta zehaztu behar da zer zeregin beteko diren eta zer lanabes eraman behar diren. Ez baldin bada beharrezkoa obligaziodun guztiek jarduketak batera eta aldi berean egitea, eta adostu baldin bada zeregin jakin batzuk obligaziodun batek edo batzuek egin ditzaketela "arrazoizko epe batean", nork duen trebetasunaren eta denbora librearen arabera, aukera hori behar bezala jaso behar da auzolanen liburuan.

Ordenantza, eta, zehazki, auzolanak egiteko prozedura ez betetzeak honako ondorio juridiko hau ekarriko luke: ustez auzolanera ez azaltzeagatik kalte-ordaina emateko betebeharra ezartzea legez kontraktzat jotzea, kexagileek salatutakoaren arabera babesgabetasuna eragin duela-eta.

4. Arabako Foru Aldundiak ondorerik gabe utzi ditu kexagileek, ustez bete ez zituzten auzolanak ordaintzeko agindua premiamendu bidez igorri zietela-eta, aurkeztu dituzten salaketak. Hala ere, ukitutakoek adierazi dute horren ondoren jarraitu dutela likidazioak jasotzen beste auzolan batzuetara ez azaltzeagatik. Interesdunen iritziz, likidazio horietan ere irregulartasunak ageri dira, administrazio-batzarrak auzolanen ordenantza urratuz jokatzeko jarraitu duelako, dela deialdiak egiteko orduan, dela auzolanen liburua betetzeko orduan.

Ondorio horietarako, informazio gisa besterik ez bada ere, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauari jarraituz, bestek beste 95., 96. eta 98. artikulua —zerga-likidazioei, ebazpena eman aurretik interesdunari entzunaldia emateari eta behar bezala jakinarazteari buruzkoak— aplikatu behar dira. Jakinarazpenean honako hauek adierazi behar dira:

- a) Zergapekoaren identifikazioa.
- b) Zerga-zorren zenbatekoa eragin duten elementuak.
- c) Jakinarazpenaren motibazioa, baldin eta ez badator bat zergapekoak adierazitako datuekin edo hark egindako arauen aplikazio edo interpretazioarekin; horrez gainera jakinarazpena eragin duten gertaerak adierazi behar dira oro har.
- d) Balia daitezkeen inpugnazio-bideak, inpugnazioak aurkeztu behar diren organoa eta aurkezteko epea.
- e) Zerga-zorra ordaindu behar den lekua, epea eta modua.
- f) Behin-behinekora edo behin betikoa den.

Halaber, zergei buruzko foru arauaren 61. artikulua haxe ezartzen du:





“Administrazioak egindako likidazioen ondoriozko zerga-zorrak daudenean, borondatez ordaintzeko aldia Zerga Administrazioak ezartzen duena izango da; nolana ere, aldi hori ezin da izan hilabetea baino gutxiagokoa izan, likidazioa jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita.”

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Behar bezala bete dezala auzolanen ordenantza, auzolanetan parte hartzeko deia egiteari dagokionez, obligaziodun guztiek horietara joateko aukera izan dezaten.
2. Ofizialdutako auzolanen liburua formaliza dezala eta eguneratuta izan dezala. Han, auzolanetara nor azaldu den eta nork huts egin duen adieraziko da, eta zehaztuko da zer auzolan adostu diren deialdi orokorretik kanpo.

